

Bilboko Kotsulegoa (1)

Deia, 1983-08-19.

Hil honetan, abuztuan, betetzen dira urteak *Bilboko Kotsulegoa* sortu zela. Aurretik Bilboko Udalak Kotsulegoaz emandako ordenurik bada ere (1447garrengo abuztuaren 11koa), sorrera bereko agiria Hendrike IVgarrenaren Errege-Karta, 1455garrengo abuztuaren 29an fetxatuta dago.

Gure herriak izan duen erakunde handienetakoaz zerbait esan nahi nuke.

Euskaldunak itsasoan aspaldidanik zebiltzanez, erakunde edo instituzioak beharrezkoak izan zituzten; italiarrak gertatutakoak izan ziren gai honetan Europako aintzindariak (XI-XII).

Gure artean zaharrena ez da euskaldunena bakarria, XIIIgarrenean sortu zen *Hermanidad de las Marismas*-ean euskaldunak hor ginen, baina ez bakarrik, Kantabriar itsasoko beste batzu ere tarteko bai ziren. Euskaldunen aintzinakoena *Baionakoa* da: aipatu genituen orain dela gutxi goiz honeratu ziren Normandotarrak (XI.); Nafarroarekin Baiona handitzen da (XIIgarren gizaldia), eta Laburdiko bizkonteak "Coutume de Hosteillage" sortzen du itsasoz garraiatzen diren merkantziatarako, eta beste legeak arrantzarako, hemen baleak; ingelesak sartzen direnean -1493- itsasorako ordenu berri eta zorrotzak erortzen dituzte.

Bien bitartean *Donostia* hasi da garrantzia hartzen Santxo Azkarraren foruarekin -1180- eta hemen itsasoari dagokiona nabarmentzen da; hala ere hain goiz abiatu zen Donostiak ez zuen 1682garren arte egiazko Kotsulegorik izango.

Aurretik dator *Bilbokoa*, eta honen inguruan, hori bai, Gipuzkoarrak ere.

Bilboko Kotsulegoak bi sasoi bai ditu: 1) *Brujas-eko Bizkaia eta Gipuzkoaren Kotsulegoa* deritzana, eta 2) Egiazko *Bilboko Hiriaren Kotsulego Kontratzioko Etxea*; hau da erakunde honen izena, nahiz eta erabiliaren poderioz, *Bilboko Kotsulegoa* bezala ezagunagoa gertatu bada ere.

Aipa dezagun, beraz, oso gaisetarik bada ere lehenengo sasoi.

Bizkaia eta Gipuzkoa alkarrekin ageri dira 1455garrengo urteko agirian; agiri honen bitartez geratzen da bi eskualde horien Kotsulegoa, *Consulado General de España*-tik bereizita, gero, 1465garrengo Konkordato batetan ikus daitekenez, alde batetik: "De los consules e mercaderes de los reinos de Castilla" ageri da, eta bestetik: "Los consules e mercaderes de la costa de Vizcaya e Guipuzcoa".

Guiard'ek¹ dionez, XV eta XVIan hasten da Bizkaiako nagusitza nabarmentzen; gero *Bizkaia* bezala agertzen da, eta azkenik, *Bilbo*.

¹ *Historia del Consulado y Casa de Contratación de la Villa de Bilbao*, Teófilo Guidard y Larrauri, 3 volumen, 1914. La Gran Enciclopedia Vasca-k birrargitaratua, Bilbon, 1972an.